

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

87

195/2018 DEKRETUA, abenduaren 26koa, Bilboko Burdin Hesia eta defentsak (Araba eta Bizkaia), monumentu-multzo kategoriarekin, kultura-ondasun kalifikatu izendatzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioko 148.1.16 eta Autonomia Estatutuko 10.19 artikuluen babesean, eskumen osoa bereganatu zuen Kultura Ondareari dagokionez. Bere gain hartutako eskumena gauzatzuz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea onartu zen.

Kulturako sailburuordearen 2017ko urriaren 3ko Ebazpenaren bidez (urriaren 11ko EHAA n argitaratu zen, 195. zenbakian, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean data eta zenbaki berearekin, baita urriaren 20ko ALHAOn ere, 121. zenbakian), Bilboko Burdin Hesiak eta defentsak (Araba eta Bizkaia), monumentu-multzoaren kategoriarekin, kultura-ondasun kalifikatu izendatzeko espedientea hastera erabaki zen.

Izapidea irekita, Mario Sagüillo Lomak, Zierbenako Udalak, Banco de Sabadell SAK, Alberto Tellitu Bañalesek eta Aranzazu Prada Garciak, Galdakao Gogora elkarteak, Larrabetzuko Udalak, Karraderan kultur-elkarteak, Arrankudiagako Udalak, Asociación Sancho de Beurkok, Gatikako Udalak, Iñaki Rodríguez Rebolledok, Ugao-Miraballeseko Udalak, Begoña Isasi Arbidek eta Euskadiko Basogintza Elkarleen Konfederakundeak alegazioak aurkeztu dituzte.

Zerbitzu Teknikoek, aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, haietako batzuk erabat bidezkoak zirela erabaki zuten, eta beste batzuk partzialki onartu zituzten, eta horrek funtsezko aldaketak ekarri ditu, bai babestutako elementuen mugaketaren esparruan, bai babes-araubidean, baita aldez aurreko argitalpenarekiko elementuen zerrendetan ere, eta horregatik abiarazi da berriro prozesua, dagokion jendaurreko informazioko izapidea irekitzeko eta interesdunei entzun ahal izateko.

Horrela, 2018ko urriaren 2ko Kulturako sailburuordearen ebazpenaren bidez, jarduketak hasierako fase berri batera atzera eramane ziren eta aldi berri bat ireki zen espedientean.

Informazioa jendaurrean jartzeko eta interesdunei entzuteko izapideak egin ondoren, ez da alegaziorik egon.

Ondorioz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 11.1 eta 12. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, Kultura Ondarearen Zentroko zerbitzu teknikoek egindako aldeko txostena aztertu ondoren, eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren proposamenez eta Gobernu Kontseiluak 2018ko abenduaren 26ko bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.— Bilboko Burdin Hesia eta defentsak (Araba eta Bizkaia) kultura-ondasun kalifikatu izendatzea, monumentu-multzo kategoriarekin.

2. artikulua.— Ondasunaren mugaketa dekretu honen I. eranskinean ezarritakoa izango da, bertan adierazitako arrazoiak oinarri dituela.

3. artikulua.– Sailkatutako ondasunaren deskribapena egitea, kultur ondarearen alorrean indarrean dauden legeek diotenaren arabera, dekretu honen II. eranskinean adierazitako eran.

4. artikulua.– Bilboko Burdin Hesia eta defentsen Dekretu honen III. eranskinean agertzen den babes-araubidea onartzea. Babestutako elementuak IV. eranskineko zerrendan agertzen dira.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak Euskal Kultura Ondarearen Zentroari atxikitako Sailkatutako Kultura Ondasunen Erregistroan inskribatuko ditu Bilboko Burdin Hesia eta defentsak.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak dekretu honen berri emango du Jabetza Erregistroan, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 26. artikuluan ezarritakoa betetzeko, eta, horrekin batera, interesdunei eta honako erakunde hauei jakinarazi: Abanto Zierbena, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Barrika, Berango, Bilbao, Derio, Erandio, Galdakao, Galdames, Gamiz-Fika, Gatika, Getxo, Gordexola, Gueñes, Larrabetzu, Laukiz, Lemoiz, Lezama, Audio, Loiu, Jatabe, Mungia, Muskiz, Okondo, Sondika, Sopela, Ugao, Urduliz, Zamudio, Zaratamo, Zeberio eta Zierbenako Udalei eta Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirola Sailari eta Ingurumen eta Hirigintza Sailari eta Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Sailari eta Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Sailari, Gogora Memoriaren Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuari bai eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari ere.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eskaera egingo die Abanto Zierbena, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Barrika, Berango, Bilbao, Derio, Erandio, Galdakao, Galdames, Gamiz-Fika, Gatika, Getxo, Gordexola, Gueñes, Larrabetzu, Laukiz, Lemoiz, Lezama, Audio, Loiu, Jatabe, Mungia, Muskiz, Okondo, Sondika, Sopela, Ugao, Urduliz, Zamudio, Zaratamo, Zeberio eta Zierbenako Udalei udal hirigintza-araudia egokitu dezaten multzo horren babes-araudiak ezartzen dituen betebeharrak, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 12.2 artikulua hala xedatzen duelako.

LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Argitara dadila dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, ALHAOn eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, jende guztiak horren berri izan dezan.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Udal planeamendua dekretu honetan ezarritako babes-araubideari egokitzen zaion arte eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren oniritzia izan arte, Bilboko Burdin Hesia eta defentsen monumentu-multzoaren mugaketak hartzen duen eremuan egin beharreko esku-hartzeak aldez aurretik Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskudunen baimena beharko dute, eta baimen horren ondotik eskuratu behar da udal lizentzia, halaxe xedatzen du-eta Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 29.1 artikulua.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Dekretu honen aurka, interesdunek administrazioarekiko auzi-errekurtoa jarri ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salan, bi hilabeteko epean, azkenekoz argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko abenduaren 26an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.

195/2018 DEKRETUA, ABENDUAREN 26KO I. ERANSKINA

MUGAKETA

Oro har Burdin Hesiaren lerroa eta bertako defentsa isolatuak dira babestu beharrekoak, 5 m-ko zerrenda batekin haren inguruan, Gamiz-Fika eta Larrabetzu udalerrietan salbu, non mugaketa 30 m-koa baita, udalerri horietan aurrez aurreko liskarrak gertatu baitziren. Burdin Hesiaren hondakinak berak dira mugaketa hori justifikatzen dutenak. Mugaketa hori finkatu da gisa honetako gatazka eremuetan afizioz edo isilpean gero eta gehiago erabiltzen diren metal detektagailuen jardunaren aurrean eremu jakin bat zaintzeko eta babesteko. Eremu horrek Bizkaiko Abanto Zierbena, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Barrika, Berango, Derio, Erandio, Galdakao, Galdames, Gamiz-Fika, Gatika, Getxo, Gordexola, Gueñes, Larrabetzu, Laukiz, Lezama, Loiu, Mungia, Muskiz, Sopela, Ugao, Urduliz, Zaratamo, Zeberio eta Zierbena udalerrietako lurak hartzen ditu, baina babes-egitura Arabako Lurralde Historikora ere iristen da, Laudio eta Okondoko udalerrietan barrena. Artxandako Lerroari dagokionez, eraztun nagusiaren barnean antolatua, Bilbao, Sondika eta Zamudioko lurak hartzen ditu. Eta Lerro Ingelesa, ekialderago, Lemoiz eta Jatabeko lurak.

Babes orokorreko eremu horretatik kanpora geratu dira azpiegitura, eraikin eta geroagoko beste esku hartzeen xede Burdin Hesiaren suntsitutako guneak. Kontuan eduki behar da azken 80 urteko aire zabaleko eremuek aldaketa sakonak bizi izan dituztela alde batzuetan. Bestalde, ez dira babes-eremu honetan jaso bere garaian planifikatu ziren arren gotortze lanen xede izan ez ziren inguruak.

Kultura ondasun izendatuaren atal da anexoetan irudikatutako 0 Lerroa, ondasunari jarraipena ematen diona, Burdin Hesiaren ustezko lerroa, adierazitako udalerri guztietan barna luzatzen dena, eraikia, suntsitua edo sekula ere ez burutua.


Multzo horren baitan tipologia eta garrantzi askotakoak dira babestu beharreko aztarnak. Leku batzuetan badira ongi kontserbatu diren babes-elementuen metaketa batzuk gune txiki batzuetan, horiek eremu berezi gisa mugatu dira, esate baterako Kurtziomendi (Barrika), Munarrikolanda (Sopela) eta beste batzuk. Horiek mugatzeko irizpide geografikoak baizik ez dira aintzat hartu, betiere aipatu metaketa eta elementu batzuen eta besteen artean lubakien edo ikusmenaren bidez dagoen lotura kontuan harturik.

Eremu horietatik gertu badira beste elementu puntual batzuk, eraikin eta indusketa sendoak, asko eta asko egoera txarrean daudenak zartatuak izan direlako edo berariaz suntsituak izan direlako. Hala eta guztiz ere, ondareari balio handiagoa emateko eta behar bezala ulertzeko funtsezko gakoak dira, eraikin sinpleak eta guztiz funtzionalak. Ez daude isolatuta, sistema bakar batera biltzen dira eta haren atal dira.


Era berean, aintzat hartu dira beste elementu batzuk, balorazio egokiago bat egiteko sakon aztertu behar direlako, kasu batzuetan haien aztarnak interpretatzen zailak direlako eta besteetan ikusezinak direlako.

Azkenik, obra baten eta beraren zati delako, helburu bera zuelako eta egileak eta kronologia ere berberak zirelako, multzo honetan bildu behar izan da hesiaren atal desberdinen arteko mugimendua eta komunikazioa ahalbidetuko zituen lubaki sarearen zati handi bat. Lubaki bakun horiek bete egin dira denboraren joanean, edo laborantza lanek edo eraikuntza zein azpiegitura lanek galarazita gertatu dira. Horiekin batera aintzat hartu dira hesiko jarduera eremuak, nola frontekoak hala atzealdekoak, isilpeko esku hartzeen eta metal detektagailuen jardunen aurrean babesteko.


2019ko urtarilaren 8a, asteartea




2019ko urtarrilaren 8a, asteartea




2019ko urtarrilaren 8a, asteartea







2019ko urtarrilaren 8a, asteartea




2019ko urtarilaren 8a, astearta




2019ko urtarrilaren 8a, asteartea




2019ko urtarrilaren 8a, astearta




2019ko urtarrilaren 8a, asteartea




2019ko urtarrilaren 8a, asteartea




2019ko urtarilaren 8a, asteartea




2019ko urtarilaren 8a, asteartea




2019ko urtarrilaren 8a, asteartea




2019ko urtarrilaren 8a, asteartea




2019ko urtarilaren 8a, asteartea




2019ko urtarilaren 8a, asteartea




2019ko urtarilaren 8a, asteartea







2019ko urtarrilaren 8a, asteartea




2019ko urtarrilaren 8a, asteartea




2019ko urtarrilaren 8a, asteartea




2019ko urtarrilaren 8a, asteartea





2019ko urtarilaren 8a, astearta




2019ko urtarrilaren 8a, asteartea








2019ko urtarrilaren 8a, asteartea



2019ko urtarrilaren 8a, asteartea



195/2018 DEKRETUA, ABENDUAREN 26KO II. ERANSKINA

DESKRIBAPENA

Estratega militarrek Burdin Hesiari begira egindako deskribapenaren arabera, hainbat sektore-tan eta azpisektoretan dago banatuta:

1.– sektorea. Sektore honek Barbadun ibaiaren bokaletik, Muskiztik eta Punta Lucerotik (Zier-bena), Galdamestik Castañosera (Galdamesko udal barrutia) doan biderainoko tartea hartzen du. Bi azpisektoretan banatzen da, Iparraldekoa eta Hegoaldekoa, Ventana Mendiak bereizita.

– Iparraldeko azpisektorea: Erdialdea Punta Luceron.

– Hegoaldeko azpisektorea: Errendimendu txikikotzat hartuta, eraiki gabe geratu zen.

2.– sektorea. Era berean «Sodupeko Erresistentzia-gune» deitua. Galdamestik Castañosera (Galdames) bideko muinotik eta Tellituko zelaian barne Okondoko Ganekogortaraino. Bi azpisek-toretan dago banatuta:

– Sodupeko antolakuntza.

– Gallarraga-Ganekogortako erresistentzia-gunea, garaiera garrantzitsuan, gailurretako zaintza postuekin nahikoa zuena gotorleku osagarri gehiagoren beharrik gabe.

3.– sektorea. Ganekogortatik, Okondon, Artetaganeraino, Galdakaon. Hiru azpisektoretan banatua:

– Zolloko azpisektorea: Kamarakako eta Zolloko defentsarako erresistentzia-gunea.

– Ugao-Miraballesko azpisektorea, gune nagusiak Ugaon, Axolan eta Saldarianen.

– Upoko azpisektorea.

4.– sektorea. Artaganetik (Galdakao) Gaztelumendi mendiko gailurreraino (Larrabetzu). Bi azpi-sektore handi hauetan banatuta dago:

– El Gallo azpisektorea. Gune nagusiak Artagan, Santa Marina eta Elexalde-Usansolon.

– Larrabetzuko azpisektorea. Gune nagusiak Leginan eta Gaztelumendin.

5.– sektorea. Gaztelumenditik (Larrabetzu) kostalderaino, zenbait lerrotan banaturik Getxo, Sopela eta Barrikako udalerrietan barna. Hiru erresistentzia-gune nagusi:

– Artebakarreko antolakuntza.

a) Artebakarreko erresistentzia-gunea.

b) Mantulizko erresistentzia-gunea.

– Unbeko erresistentzia-gunea. San Migel baselizari leku egiten dion muinoa ixten du eta Arte-bakarreko erresistentzia-gunearekin bat egiten du Mantulizen.

– Sopelako antolakuntza.

a) Munarrikolandako erresistentzia-gunea.

b) Santa Marina Haitzetako erresistentzia-gunea.

c) Ganesko erresistentzia-gunea.

Eta horiei guztiei Lemoiz eta Jatabe udalerrien artean luzatzen den Andrakako sektorea edo Lerro Ingelesa deituari dagozkion defentsak gehitu behar zaizkie, baita Bilbao, Sondika eta Zamu-dioko udalerrietan luzatzen den Artxandako Lerroa ere. Biak daude Bilboko defentsa-egiturari lotuta, eta beraz, biak biltzen dira espediente honetan ondorio guztietarako.

195/2018 DEKRETUA, ABENDUAREN 26KO III. ERANSKINA

BABES-ARAUBIDEA

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Aplikazio-eremua.

Babes-araubide honek bere baitan hartzen ditu monumentu-multzoaren kategoriarekin sailkatutako Bilboko Burdin Hesiaren eta defentsen mugaketaren barruan (Artxandako Lerroa eta Lerro Ingelesa barne) dauden egitura, eraikin eta lur guztiak. Ebazpen honen IV. eranskinean daude horiek guztiak adierazita.

2. artikulua.– Izaera loteslea.

Babes-araubide hau Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 12. artikuluan xedatutakoari jarraikiz idatzi da. Kultura Ondasun Kalifikatu gisa sailkatutako Bilboko Burdin Hesia eta defentsak Monumentu Multzoaren adierazpenaren parte da, eta hirigintza plangintzarako loteslea da, lege horren 28.1 artikuluan xedatutakoarekin bat.

Horregatik, Bilboko Burdin Hesia eta defentsak Kalifikatutako Ondasun gisa jaso behar da, Monumentu-multzoaren kategoriarekin, haiei leku egiten dieten udalerrietako plangintza tresnetako Kultura Ondarearen Katalogoan. Era berean, inguru horietako antolamenduari dagokionez, aipatu egiturak behar bezala zaintzeko eta babesteko xedean bereziki landu den babes-araubide honetan zehaztutakoetara doituko dira plan horiek. Nolanahi ere den, behar-beharrezkoa izango da Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen alorrean eskumenak dituen sailaren aldeko txostena plan horiek onartuak izateko.

Plangintza tresna horiek aztergai dugun kultur ondasuna babesteko araubidea prestatu baino lehen idatziak baldin badira, egokitu egin beharko dira babes-araubide honen bidez egituratutako babes-neurrietara egokitzen ez baldin badira edo horien aurkakoak baldin badira.

3. artikulua.– Zonakatzea.

Bilboko Burdin Hesiaren eta defentsen babesa bermatuko duen erabilera eta jarduera araubide orokorra ezartzerakoan, hiru eremu eta, erreferentzia gisa, lerro bat bereizi behar dira:

– 0 Lerroa. I. eranskinean dago irudikatuta, izendatutako elementuaren luzera osoa deskribatzen du. Irudikatutako lerroa da, ustez Burdin Hesiak izango zuena proiektatua, gorago adierazitako udalerri guztietan barna luzatzen dena, eraikia, suntsitua edo sekula ere ez gauzatua; erreferentzia gisa baizik ez dugu irudikatzen.

– 1. eremua, babes berezikoa. Burdin Hesia ulertzeko funtsezko babes-egituren inguru gertuean egituratutako guneak, lerroaren luzera osoan antolatuak, hartzen ditu.

Horiek «eremu babestuak» izan daitezke, hala daude adierazita IV. eranskinean, edo elementu puntualak. Lehenengoan sailkatzen da espazio txiki batean bildutako elementuen metaketa (eraikitako eta induskatutako egiturak eta horien arteko loturak bermatzeko lubakiak). I. eranskineko planoetan adierazitakoak dira «eremu babestuak»; bigarrenak elementu puntualak dira (gotorleku txikiak, tirarientzako postuak eta babesguneak), eta horien mugaketari begira dena delako elementua gehi haren kanpoko ertzen inguruko 5 metroko tartea zehaztu da.

– 2. eremua, bigarren mailako babes-mailarekin. Halakoetan baditugu aztarna garrantzitsuen arrastoak, baina horien egoera oso txarra denez edo beste arrazoi batzuk tarteko, ezinezkoa da haiek egoki interpretatzea eta baloratzea.

Elementu horiek sakon aztertu behar dira burura eraman beharreko edozein esku hartze abiarazi baino lehen. Azterlan horiek, epe ertain edo luzera, dekretuan aldaketak egin beharra ekar dezakete, dekretuan babes bereziko eremu gisa hartzeko edo, bestela bada, babestutako elementuen zerrendatik kanpora uzteko.

– 3. eremua, oinarritzko babesarekin. Multzo orokorra babesteko eremua. Hura mugatzeko 5 metroko zerrenda paralelo bana ezarri da 0 Lerroa edo irudikatutako lerroa esan diogunaren alde bietara, Burdin Hesiaren lerro proiektatuaren alde bietara, gorago adierazi ditugun udalerri guztietan barna luzatzen dena, eraikia, suntsitua edo sekula ere ez gauzatua. Gamiz-Fika eta Larrabetzuko udal-mugarteetan, eta Artxandako Lerroan eta Lerro Ingelesean, eremu hori 30 m-ra zabaldu da 0 Lerroaren bi aldeetara (ikus I. eranskineko planoak).

Babes-maila orokorreko eremu honetatik kanpora daude Burdin Hesiaren atalak, geroagoko eraikuntzen eta esku hartzeen ondorioz argi eta garbi galdu diren atalei leku egingo zieten tartearak. Era berean, ez dira aintzat hartzen inolako zalantzarik gabe gotortze lanen xede izan ez ziren eremuak.

II. KAPITULUA

ERABILEREN ETA JARDUEREN ARAUBIDE OROKORRA

4. artikulua.– Irizpide orokorra.

1.– Babes-araubide honetan zehazten diren erabilerak eta jarduerak baino ez dira onartuko. Ezarritako babesaren aurkako erabilera eta jardueratzat joko da araubide honetan adierazten ez den erabilera eta jarduera oro.

2.– Aurreko paragrafoan adierazitakoa gorabehera, orain babes-araubide honetan adierazi ez diren beste erabilera batzuekin bateragarri egiteko beharra planteatzen bada, Eusko Jaurlaritzak gune arkeologikoaren erabilerak aldatu ahal izango ditu, hala badagokio eta dagozkion txostenak ikusita, baldin eta aldaketa horiek lurra iraultzen ez badute eta gune babestuan dauden aztarna arkeologikoak hondatzen ez badira.

3.– Burdin Hesiaren espazio osoari begira eta 3. artikuluan deskribatutako zonakatzea aintzat hartuta, hiru babes-maila ezarri dira.

5. artikulua.– Erabilerak eta jarduerak 1. eremuan edo babes bereziko eremuan.

1.– Irizpide orokorra:

Oro har, espediente honetan aintzat hartutako Bilboko Burdin Hesiaren eta defentsen ondarea zaintzeko eta babesteko jarduerak ez beste guztiak saihestea izango da eremu hauetan jarraitu beharreko irizpidea. Gutxienera murriztuko da babes-maila honetan bildutako ondasunen egoera kaltetu dezakeen jarduera oro, eta ez da aztarna higiezinaren edo elementu nabarmenen suntsipena edo kaltea eragin dezakeen erabilera eta jarduerarik onartuko.

Babes-araubide honen ondorioei begira aztarna higiezinak dira eremuan dauden egitura eta azpiegitura guztiak, eraikiak eta induskatuak, historiaren edo ondarearen ikuspegitik burdin hesiarekin, defentsa militararekin edo testuinguru historikoarekin zerikusia dutenak, handiak izan ala txikiak, kontserbazio egoera onean egon ala txarrean, izaera monumentala izan ala ez.

Goian adierazitakoarekin bat, eremu honetan zientzia, kultura eta zabalkunde erabilera baizik ez dira baimenduko, eta planteatzen den esku-hartze mota dena delako elementua sendotzeko, kontserbatzeko, zaharberritzeko eta hari balio handia emateko baizik ez da planteatuko, betiere esku hartzea ahalik eta txikiena izateko ahaleginak eginda. Era berean, indusketa arkeologikoak baimenduko dira.

2.– Eraikuntzaz kanpoko erabilera eta jardura onartuak.

2.1.– Zientzia arloko jarduerak. Aztarnak lekuan bertan uzteko beharra.

2.1.1.– Tokiko ondare balioarekin zerikusia duten jarduerak baizik ez dira baimenduko, ikerketa zientifikoen xede direnak, eta hori bi baldintza betetzen direnean, proiektu bat egotea eta proiektu hori dagokion foru aldundiak onartua izatea eta aldeez aurretik arkeologia zerbitzuko teknikariek onetsita egotea.

2.1.2.– Lekuan izango diren jardura zientifiko guztiak (indusketa arkeologikoak, analisiak, ikerketak e.a.) ikertu beharreko lekua eta testuingurua aztertzeke programa antolatu batean bildu behar dira, eta ezagutza emendatzen lagundu behar dute ondasunari balio handiagoa emateko. Bertan garatu beharreko edozein jardueraren lehenengo asmoa izango da aztarna higiezinak, inguru honetan bideratu beharreko metodologia arkeologikoaren bidez azalduko direnak, bistartzen diren lekuan bertan kontserbatzea.

2.1.3.– Egungo aztarnak edo ager daitezkeenak sendotzeko, in situ kontserbatzeko eta, hala behar duenean, zaharberritzeko proiektu bat eramango da burura, aztarna horiek hondamen prozesuetatik salbuesteko eta salbu uzteko. Hala eta guztiz ere, kontuan harturik aztarna horiei leku egiten dien ingurunea eta horretatik eratorritako arazoak, baita aztarna gehienen izaera hauskorra ere, leku horietan bideratu beharreko esku hartzeak gutxienera eramango dira, eta soilik dena delako elementua behar bezala kontserbatzeko eta aztertzeke beharrezkoak direnean bideratuko dira.

2.2.– Kultura-jarduerari eta ondasuna ezagutzera emateko moduei buruz.

2.2.1.– Egituren aztarnen kontserbazioarekin bateragarriak diren kultura jarduerak egin eta sustatu ahal izango dira, Bilboko Burdin Hesia eta defentsak eta bertako ondare balioak ezagutarazteko eta haiei zabalkundea emateko xedea duten jarduerak. Babestutako guneak kultura ibilbideetan sartu ahal izango dira, eta eremu hori egokituko da bisitariak hartzeko: ondasuna sendotzeko proiektu txikiak egingo dira, ingurua erakusteko modu egokiak eta ulergarriak erabiliko dira, guneko elementuren bat berreraikiko da, eta abar.

2.2.2.– Ondare elementuek bat egiten dutenez Memoria Historikoa berreskuratzeko beste elementu batzuekin, berau ezagutarazteko, gogoratzeko eta berreskuratzeko jarduerak egin ahal izango dira, Bilboko Burdin Hesiarekin eta defentsekin zerikusia duten elementuen kontserbazioarekin bateragarriak baldin badira eta artikulu honetan finkatutako babes-irizpideak betetzen badira.

2.2.3.– Eremu honetako mugen barruan garatu beharreko jardura horiek guztiak aurrera eramateko, ezinbestekoa izango da aldeez aurretik arkeologia alorreko zerbitzu teknikoaren aldeko txostena eta ondoren dagokion foru aldundian arloan eskumena duen sailaren baimena izatea, jardura horiek eremuan agerian dauden edo agerian gera litezkeen egituren kontserbazioarekin bateragarriak direla bermatzeko eta babestuta dauden elementuen osotasuna bermatzeko. Hala behar badu, edozein jardura abiarazi baino lehen, dena delako inguruan egin beharreko esku hartze arkeologikoak edo beste motatakoak finkatuko ditu.

3.– Erabilera onartuak.

3.1.– Etxebizitza edo gela osagarrien erabilera.

Etxebizitza edo haren gela osagarriaren erabilera onartzen da Burdin Hesiaren egituretan erabilera hori duten lekuetan, edo haren aztarnak biltzen dituztenetan babes-araubide hau argitara ematen denean. Nolanahi ere den, higiezin horietan esku hartzeren bat bideratu ahal izateko, ezinbestekoa izango da dagokion foru aldundiak aldeztu aurretik baimena ematea, arkeologia alorreko zerbitzu teknikoek idatzitako aldeko txostenarekin, eremuan agerian dauden edo agerian gera litezkeen egituren kontserbazioarekin bateragarriak direla bermatzeko eta babestuta dauden elementuen osotasuna bermatzeko. Hala behar duenean, edozein jarduerari ekin baino lehen, bideratu beharreko esku arkeologikoak edo beste mota batekoak finkatuko dira. Nolanahi ere den, ez da babestutako egiturak kaltetzea edo ezkutatzea ekar lezakeen esku hartze bakar bat ere onartuko.

3.2.– Basogintza.

Eremu horiek ez dira baso berrituko, ez dira horietan zuhaitzak aldatuko. Mozketak egin behar badira, sustraiak erauzi gabe moztuko dira zuhaitzak, motzondoak beren horretan utziko dira. Zuhaitzak mozteko eta egurra ateratzeko baldintza guztiak eta balizko inpaktua aldeztu aurretik finkatuko ditu arkeologiaren alorreko profesional batek. Dagokion foru aldundiko arkeologia alorreko zerbitzu teknikoek aurrez idatzitako txostenak baimenduko du, hala behar badu, dena delako esku hartzea.

Nolanahi ere den, esku hartze horiek jarduerari leku egiten dion lurraldeko foru aldundiko arkeologia alorreko teknikariek gainbegiratu dituzte, eta aldeztu aurretik memoria eta jardueraren nondik norakoak ikusirik, edozein salbuespen ezarri ahal izango dute esku hartzearen ondorioz erator litezkeen arrazoiek horretara eramaten badituzte. Foru aldundi honen aurretiazko baimena ezinbestekoa izango da jarduera burura eraman ahal izateko.

4.– Baimendutako esku hartzeak eta jarduteko irizpideak.

4.1.– 1. eremu hauetan, babes bereziko eremuetan, honako esku hartze hauek baizik ez dira baimentzen: sendotzeko, kontserbatzeko, zaharberritzeko eta aztertzeko lanak eta indusketa arkeologikoa. Horiek guztiak elementuak kontserbatzeko eta Bilboko Burdin Hesia eta defentsak hobe ulertzeko xedearekin.

Eraikitako edo induskatutako gotorlekuetan egin asmo diren eta horietan eragina duten edo izan dezaketen sendotzeko, zaharberritzeko eta gisako esku hartzeei ekin baino lehen, esku hartze horiei eta beren ondorioei buruzko azterlan zehatza idatziko da, eta dagokion foru aldundiak onartuta behar du aipatu erakundeko kultura ondarearen alorreko zerbitzu teknikoek txostena ere aldekoa baldin bada; gainera, zerbitzu horiek erabakiko dute izaera arkeologikoko neurri zuzentzaileak hartzeko beharra dagoen ala ez.

Esku hartzeetan baliatzen den edozein teknika zein material itzulgarria izango da, atzera egin behar izanez gero haren arrastorik batere gera ez dadin.

4.2.– Bilboko Burdin Hesia eta defentsak interpretatzeko eta irakurketa egokia egiteko ezinbestekoa baldin bada, egun desagertuak diren egituren atalak berreraiki ahal izango dira, baina berreraikitako atalak ez dira multzoan nabarmenduko.

Nolanahi ere den, jatorrizko egituraren arabekoak izango dira berreraikitako atalak, aurretiazko azterlanean finkatutako urratsen arabera beti. Horretarako jatorrizko materialak erabiliko dira edo, halakoak galdu badira, kolorearen, formaren, ehunduraren eta beste alderdi batzuen arabera antzekoak diren materialak. Hala eta guztiz ere, arau orokor gisa argi eta garbi bereiziko dira jatorrizko egituraren atala eta berreraikitakoa, esate baterako bi atalak bereiziko dituen narra marraztuko duen beste material bat erabiliz edo antzeko beste teknika bat erabiliz.

4.3.– Era berean, kendu edo suntsitu egingo dira Burdin Hesiar ez dagozkion egiturak eta elementuak, hesia eraiki ondoren ezarritakoak baldin badira eta haren osagarri ez badira edo haren testuingurura biltzen ez badira, batez ere ondasunaren ikuspegia hondatzen eta galarazten duten elementuak baldin badira. Multzoaren osagarri direnak, haren ezagutzan lagungarri direnak edo testuingurura biltzen direnak baizik ez dira kontserbatuko, baina halere ongi arrazoituta egongo dira kasu horiek. Era berean, salbuetsita daude espediente honetan adierazitako erabilera baimenduen artean sartzen direnak.

4.4.– Eremu hauetan finkatzeko eta kontserbatzeko programak sustatu beharko dira egituren eta multzoaren babesa bermatzeko edozein esku hartze prozesuari ekin baino lehen, esku hartzea abian denean eta gero.

Programa horiek alorreko adituek egituratuko dituzte arkeologiaren alorreko profesionalen eta gerra zibilean eta Bilboko Burdin Hesian eta defentsetan bildutako defentsa militarretan adituak direnen aholkuak aintzat hartuta. Prozesu horiek ere itzulgarriak izango dira beti.

4.5.– Eremu horietan kartelak ahalik eta gehien mugatuko dira neurriz eta kopuruz, ikusizko inpaktua ere ahalik eta txikiena izan dadin. Tokiaren kultura-interesarekin lotuta egongo dira, edo berau interpretatzen eta ulertzen lagunduko dute. Nolanahi ere den, halakoak jartzea baimentzen bada, bateratu egin beharko dira lerro osoan seinaleak jartzeko irizpideak.

4.6.– Memoria Historikoaren esparruan ere halako interesa duten elementuak direnez, baimendu egiten da gerrako protagonisten gorpuzkiak lurpetik ateratzeko lanak. Horretarako, ezinbestekoak izango dira esku hartze hori burura eramateko premia justifikatzen duen memoria eta esku hartzeari dagokion proiektu arkeologikoa, dagokion foru aldundiko arkeologia alorreko zerbitzu teknikoek behin txostena irakurri eta onartu eta gero. Esku hartzeaz arduratzen den zuzendari-tzak argi eta garbi bereiziko ditu Memoria Historikoaren esparruari dagozkion aztarna pertsonalak eta Kultura Ondarearen esparruari dagozkion beste aztarnak, Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legeak arautzen dituen bakarrak. Nolanahi ere den, esku hartze horiek betiere egongo dira araudi arkeologikoaren mende baimenei, memoriei, zerrendei eta material arkeologikoen deposituari dagokienez (esan gabe doa, gure kultura ondarearen atal direla adierazten diren horiek, eta ez memoria historikoari dagozkionak).

6. artikulua.– Erabilerak eta jarduerak 2. eremuan, bigarren mailako babes-eremuan.

1.– Irizpide orokorra.

Eremu hauetan esku hartze arkeologikorik egiten ez den bitartean, alde hauetan babes bereziko eremuei begira ezarritako babes-araubide bera aplikatzea izango da irizpide orokorra.

2.– Erabilerak eta jarduerak.

